

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5258

AGINDUA, 2024ko azaroaren 5ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzan hutsik dago goi-kargudunaren idazkari lanpostua (520010 kodea, 191 dotazioa), eta, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren aldeko txostena emanda, eranskinean zehaztutako lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egitea erabaki du sail honek, betiere oinarri hauekin:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Izangaiek Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea, eta bertan euren datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa zehaztu beharko dute. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.– Izangaiek, idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoko dituen:

- Titulu akademikoak.
- Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak.
- Egindako ikasketak eta ikastaroak, dakizkiten hizkuntzak eta izangaien ustez adierazgarri diren bestelako merezimenduak.

Eskatzen diren betekizunen eta adierazitako merezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi honen ebazpena Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko sailburuaren aginduz izango da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2024ko azaroaren 15a, ostirala

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 5a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

- Izena: Goi-kargudunaren idazkaria (520010 kodea, 191 dotazioa).
- Lekua: Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza.
- Lantokia: Vitoria-Gasteiz.
- Kidegoa: C1 edo C2.
- Destino-osagarriaren maila: 18.
- Berariazko osagarria: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Derrigortasun data: 2017-03-31.

Lanpostuan aritzeko eskakizunak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako karrerako funtzionarioa izanik, jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.
- Administrazioen edo administrari laguntzaileen eskalakoa izatea.
- Era berean, adierazitako kidegoetako karrerako funtzionarioak derrigorrezko eszedentzian, beste administrazio publikoren baten zerbitzuak eskaintzen, suspentso egoeran edo borondatezko eszedentzian badaude ere lehiaketara aurkeztu ahal izango dira eta, horrela, jarduneko zerbitzura itzuli. Baina, horretarako, beteta eduki behar dute egoera horietarako ezarritako gutxieneko epea.